

2018-05-25 / 567. ZENBAKIA / 14. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

Gazte Festak Urnietan, asteburu honetan

Ostiraletik igandera ospakizun ugari Urnietan. Jai giroko hitzorduez gain, Argazki rallyaren eta Benjamin jaiaren edizio berriak ospatuko dira larunbatean / 8

Ekainaren 10eko giza kateari begira lanean ari dira Andoainen eta Urnietan / 7, 14

Katramila antzerki taldearen ikasturte amaierako emanaldiak asteburu honetan / 16



Zegama-Aizkorri igande honetan

Jokin Lizeagaren hutsunearekin abiatuko da lasterketa. Aiurriko azala, urnietarraren omenez. / 9-11

AIURRI

Maiztaren 25tik 27ra
GAZTE FESTAK URNIETA 2018

MAIATZAK 25 OSTIRALA
MAIATZAK 26 LARUNBATA
MAIATZAK 27 IGANDEA

MAIATZAK 26
URNIETAKO XXV. ARGAZKI DIGITAL RALLYA

QINARRIAK WWW.URNIETA.EUS

www.urnieta.eus [f Urnietako Udala](https://www.facebook.com/urnietako.udala)
[@UrnietakoUdala](https://twitter.com/urnietakoudala) [Urnieto.App](https://www.getty.com/urnieto-app)

Urnietako udala



Felipe Izagirre, Martin eta Martzelina gurasoen argazkia eskuetan duela. Adarramendipean jaio eta hazitako gurasoak ezinbesteko erreferentzia dira bere bizitzan. AIURRI

Apaizenganako errepresioa

Hogei apaiz eta apaiz ohiek polizien eskuetan jasandako torturak kontatu dituzte *Apaizak ere torturatuak* liburuan. Felipe Izagirre urnietarra da testigantza emaleetako bat. Bi alditan torturatu zuten estatuko indar polizialek, frantziskotarra zela

Xabier Lasa ANDOAIN

Zer adierazi nahi izan duzue Apaizak ere torturatuak liburuarekin?

Gorrotoa, mendekua eta antzeko sentimenduak ez ditugu transmititu nahi izan, hori has-teko. Bi mezu behintzat plaza-ratu nahi izan ditugu. Batetik, herri honetan torturatuak izan diren gainerako pertsonekin identifikatzen garela, apaizak ginenok ere torturatuak izan ginelako. Eta horrenbestez, Euskal Herrian giza eskubideen urraketen oroimenak, geure testigantza ere jaso beharko

lukeela. Bestalde, Elizak jokatu duen papera ere mahairatu nahi izan dugu, 1936ko gerran eta gerraz geroztikako urteetan frankismoarekin eduki zuen inplikazioagatik.

Badago tortura kasuak izan direla ukatzen duenik...

Dena gezurtatzea izan da estatua eta torturatzaileak zabaltzen saiatu diren diskurtsoa, betidanik. ETArekin inongo zerikusirik ez geneukan apaizak eta kultur eragileak ere polizien biktima izan ginen. Apaizak jipoitzeko gai izan baziren, zer

ez ote zuten egingo gainerako herritarrekin?

Torturak ez ditu ezaugarri berberak hartu garai historiko ezberdinetan, baina sistematikoa izan da informazioa lortzeko ez ezik, atxilotuari min fisikoa eta psikologikoa eragiteko. Poliziak izan dira tortura aplikatu dutenak, baina klase politikoaren eta botere judizialaren konplizitatea eduki dute. Estatua izan da makinaria guztiaren azken erantzulea.

Kontatzen duzunez, bi txandatan izan zinen torturatuak.

Bai. Lehenbiziko aldia Eibarren izan zen, 1968an. Juan Mari Zulaika eta biok fraide frantzisko-tarrak ginen, baina ordurako Elizaren Jerarkiarekin konforme ez, eta abade langile gisa bizi ginen Eibarren. Ekainean, Txabi Etxeberrieta hil zuten Tolosan enfrontamendu armatuan, eta protesta ugari antolatu zen. Mezak ere antolatu ziren han-hemen, baina Eibarren guardia zibilak jendeari ez zion utzi elizara sartzen. Zulaika eta biok, jendartetik atera eta elizan sartzen saiatu ginen. Orduan ez gintuzten atxilotu, baina lehendik ere nahiko fitxatuta geundenez, gauean gure bila etorri ziren etxera. Kuartelean, inongo galdeketa egin gabe, torturari ekin zioten. Igual hamar bat guardia azaltzen ziren, eta gorpuzteko atal guztietan kolpeak eman ostean, alde egiten zuten; berehala, beste hamar bat azaltzen ziren, gauza berbera egiteko. Kolpe fisikoez gain, mehatxu eta irainak etengabeak izan ziren, "os vamos a matar" eta antzekoak, pistola buruan jarrita. Lehenbiziko bi egunak horrela joan ziren, eta hirugarrengoa deklaratzeko uea etorri zen.

Nik uste gorrotoa eta haserrea zeukatela Txabirekin eta edukitako enfrontamenduan guardia zibil bat hil zutela eta, eta barruak askatzeko erabili gintuztela.

Salatu zenuten jasandako tratua?

Hiru egunez Martuteneko kartzelako erizaintzan eduki gintuzten. Aske geratu ginenean, Luis Maria Bandres eta Miguel Castells abokatuek gorputz guztiko ubelduren argazkiak atera zizkiguten. Argazkiak Argai Gipuzkoako gotzainari bidali zizkioten, baina "galdu" egin ziren.

"GIZA ESKUBIDEEN URRAKETEI DAGOKIONEZ, GURE TESTIGANTZA JASO BEHAR DA"

"TORTURATU GINTUZTEN LEHEN ALDIAN EZ ZIGUTEN INONGO GALDEKETARIK EGIN"

Deskribatuko zenuke nolakoa izan zen bigarren aldiz sufritu zenuen tortura kasua?

1969an errepresioaren aurkako mugimenduan nebilan. Apirilaren 9an, Bilbon ETako hainbat militante atxilotu zituzten: Onaindia, Abrisketa, Arana eta beste batzuk. Bertsio ofiziala gezurtatzeko bost pertsonako taldea osatu genuen; maiatzaren 1ean propaganda zabaltzea zen gure asmoa. Egun batzuk lehenago, ordea, atxilotu eta apaizentzat antolatutako Zamorako kartzelan hilabeteko zigorra betetzera eramanez ninduten. Aurreko urtetatik betetzeko neukan zigorra zen hura, egindako sermoi bat zela eta; txanda hartan Elizaren jerarkiak aukeran jarri zidan: Palentziara komentu batera, ala, isuna ordaintzea. Nik ez bata ez bestea erantzun nien, eta orduan, hilabeteko kartzela beste erremediorik ez zidaten utzi.

Zamoran hilabeteko zigorra betetzen ari nintzela, nire bila etorri ziren. Donostiako komisaldegira ekarri ninduten. Nonbait, propagandako taldekideak bezperan atxilotu egin zituzten. Eskuburdinak estu-estu jarri zizkidaten, eta hiru egun horrela pasa nituen. Zutik egon behar denbora guztian; erortzen nintzenezan leher eginda, berriro altxarazten ninduten, kolpeka. Noizbehinka, galdeketak, komisarioaren bulegora eramaten ninduten; atzean kolpatzen ninduten bi polizia jartzen zitzaizkidan, eta aurrean komisarioa eserita. Gustoko erantzunak ez zituenean entzuten, altxatu eta ukalbikadak ematen zizkidan komisarioak.

Azkenean Martutenera eramanez ninduten. Lasanta epaile instruktorre militarren aurretik pasa behar izan nuen eskumuturrak odolez neuzkala, eta "Bandidaje y terrorismo"ko legea aplikatu zidaten.

Epaitu al zintuzten?

Bai, abuztuaren bertan, Burgosen. Fiskalak hogeituroko zigorra eskatu zuen, eta azkenean hamarrera jaitsi zidaten. Bandres abokatuak esan zidan "te has librado de buena"; nonbait, egundoko garaipena izan zen murrizketa, orduko zigorren gehiegikeriak ikusita. Zigorraren lehen hiru urteak Zamorako kartzelan bete nituen, eta besteak Jaen, Soria eta Segoviako kartzelatan. 1975eko azaroan utzi ninduten aske, Franco hil eta berehalaxe.

Elizarekin oso kritiko azaltzen zarrate liburuan.

Francok Vaticanoarekin sinatu zuen Konkordatoaren ondorioz, Zamoran kartzela berezia ireki zuten 1968an, apaiza errebeldeak han biltzeko. Elizak kolaboratu egin zuen diktadorearekin.

Frantziskotarrek euskaltzaleen sona eduki izan dute...

Tartean euskaltzaleak izan direla, hori ezin da ukatu. Baina zuri beltzeko historia da Arantzazuko fraideena. Arantzazun egin nituen urteetan gaztelania zen klaseetako hizkuntza ofiziala. Jatorduetan, mezetan, irakurketetan... dena gaztelaniaz izaten zen. Euskara ez zen existitzen hizkuntza bezala.

Errepresioa jasan nuen urteetan nirekin gaizki jokatu zutela esango nuke, ez nuen inongo gertutasunik sentitu.

Zergatik erabaki zenuen ez zenuela fraide izaten jarraitu nahi?

Kontzientzia hartze baten ebo-luzio pertsonala izan zen. 15 urterekin, Urnietako bizitza utzi eta Arantzazuko seminariara joan nintzen. Han ikasketak egin ondoren, Bilbora komentu batera destinatu ninduten 1964an, eta beste mundu bat ezagutu nuen. Errealitatea, alegia: diktadura, Elizak diktadorearekin zeukan konplizitatea, diktadorearen aurkako borroka klandestinoa... 36ko gerratik zetorren jende euskaltzale eta nazionalistarekin egin nituen harremanak, eta konpromiso soziala eta politikoa hartzen joan nintzen.

Deseroso nintzen batzuentzat, eta handik bidali egin ninduten, Bermeora. 1966an Lege Organikoaren aldeko erreferenduma antolatu zuen Francok, diktadura berresteko asmoz. Beteta zegoen elizan adierazi nuen botoa emateko garaian gogoan hartzeko nortzuk bombardatu zuten Gernika. Ikaragarriko mehatxuak jaso nituen, eta kuartelean ere salaketak jarri zituzten nire aurka.

Bermeon ere denbora askorik ez zenuen iraun...

Kurioso izan zen. Nora bidaliko, eta Granadako kuartel militarra, apaiz kastrense izateko! Egun seinalatu batean, meza nagusian, zeresan handia eman zuen sermoia egin nuen; justizia eta askatasuna oinarri zituen Juan XXIII.aren entziklika aipatu nuen, ejertzitoko desberdintasun jerarkikoak eta soldadu askoren pobrezia salatuz.

Meza bukatu bezain pronto, zenbait ofizial nigana hurbidu, eta epelak entzun behar izan nituen; fusilatzea merezi nuela eta antzekoak. Baza herrira hilabete baterako desterratu ninduten, eta ondoren aukeran jarri zidaten: Valladolid ala Amerika. Frankismoaren aurkako konpromisoarekin segi nahi nuen, Valladolid hautatu nuen.

Hango fraideak frankista hutsak ziren. Ez nuen han denbora asko egin. Hura utzi eta Eibarrera joatea erabaki nuen.

Jakin al liteke Urnietara bezalako herri bateko gaztetxo batek zer dela eta hartu zezakeen fraide izateko aukera hori?

Adarramendipekoak nituen gurasoak, baserritarrak. Aita Enbutegin jaioa, ama Oiarbiden. Gaztelara emigratu behar izan zuten bizimodua ateratzeko, eta neu Avilana jaio nintzen. Nolanahi ere, seme-alabak hartu eta Urnietara itzuli zen familia. Herrigunean bizitzen jarri ginen, hilabete gutxiko haurra nintzela. Eskolan oso azkarra nintzen, eta meza-mutila nintzen. Arantzazu eta bertako fraideen bizimodua idealizatu egin nuen, eta etorkizuna ere ez zenez oso argi ikusten inorentzat, harako bidea hartu nuen 15 urterekin. Nork bere sikoanalisi egin beharko luke; nik eginga daukat, eta iruditzen zait elizaren proiektatu nuela 11 urte nituela ama hil izanak eragin zidan hutsunea.

Arantzazun ikastea pribilegiatu batzuren kontua zen. Formazio akademiko handia jaso genuen, baina aldi berean, moralaren alorrean aberrazio hutsa izan zen han transmititu zitzaiguna, dena bizitzen baitzen erruduntasunaren sentimenduetarekin.

"15 URTEREKIN FRAIDEN BIZIMODUA IDEALIZATU ETA HARAKO BIDEA HARTU NUEN"

"ARANTZAZUN IKASTEAREN PRIBILEGIOA ZEN, BAINA MORALAREN ALDETIK ABERRAZIO HUTSA"



Testigantza kolektiboa

Hona nortzuk diren libururako hitza hartu duten hogeituroko elizgizon horiek: Juan Mari Zulaika, Felipe Izagirre, Jon Etxabe, Mikel Zuazabeitia, Martin Orbe, Kepa Arrate, Tasio Erkizia, Jose A. Kalzada, Angel Fernandez, Luis Amiano, Txomin Artetxe, Frantzisko Jabier Olabe, Andoni Armentia, Pedro J. Larrea, Juan J. Camarero-Nuñez, Luis Arsuaga, Jose Mari Aleman, Iñaki Urtaran, Jose R. Trebiño, eta Txema Auzmendi. 1968koak dira biltzen diren lehenengo lekukotzak, Juan Mari Zulaika eta Felipe Izagirrerenak; 2003koa da azkena, Txema Auzmendik eginga eta Egunkaria kasuari dagokiona. Guztira, 15 frankismo garaikoak, eta 5 Konstituzioa indarrean jarri ondorengoak. Intxorta 1937 Kultur elkarte da argitaratzailea.

Bi hitzurre dakartzela liburuak. Bata, Jon Mirena Landa zuzenbide Penaleko katedradunak sinatua. Hona pasarte bat: "(...) Gainera, ETak behin betiko jardun armatua utzi duela aldarrikatu ondoren eta Euskal Herrian bakegintzan aurrera goazela, gai honi heldu beharko zaio. Ez da posible izango egin den kalte itzela guztiz konpontzea. Justizia administrazioak egin ez duen lana ezin da orain guztiz ordeztu. Baina justiziak galdatzen du arazoa aitortzeko. Kalte erreparazio sinbolikoa zor zaigu! Zor diegu torturatuei! Nork eta estatuak aitortu behar du hor egindako giza eskubideen urraketa argia...".

Xabier Aierdi EHUko irakasleak idatzi du bigarren hitzurrea. Hona zer dioten iraganeko apaiz disidenteen gainean: "(...) Kontua da garai hartan harro geundela gure apaizekin eta seguruenik apaizak ezkutuak garatzen ari ziren gizartearekin ere. Alde bikoa zen bidea eta miresmena. Harrotasun honek ordura arteko "euskaldun fededun" bikote hautsiezina leherarazi egingo zuen geroago. Baita federeko harreman ere, eta hala apaiz ugari nola jendarte euskaldun/abertzeak erlijioetik ihes egingo zuen, baina urrutze prozesu oso konplexu batean. Erlijioa, ideologia, politika, transferentziak bata eta bestearen artean, jainko eta herri aukeratua izatea Gogor diskoaren hainbat aldiz agertzen den moduan, ETA... nahaste emankor eta sinkretikoaren garatu ziren, eta gaurdaino ere hainbat lerro ezkutu bereizi gabe heldu zaizkigu, batzuetan onurarako eta besteetan kalterako eta baita kalte egiteko ere.

Garai hartan, euskal jendeartea (-n/-k) udalka, auzoka, parrokiak, hain ugariak ziren apaizak bi azpikomunitatan banandu ziren/genituen: gureak-bertakoak (politikagoak) eta besteak (elizkoiagoak, eta beste hainbat erregimenekoak). Lerroak ez zeuden oso argi, baina gutxi-asko ulertu egin ziren, eta bereizteko ipar orratz legitimitatzaile ezberdinak erabiltzen ziren: esaterako, gure amak, "lenguas vernáculas" defendatu zituelako, Juan XVIII etengabe ahoan izaten zuten, Garai hartan apaiz berri eta gazte hauek bideratzen zuten mezua egia errebelatu berria zen, eta Jainkoak eta Elizak Moisesen taula berrietan maiuskuladun Justizia behin betiko gauzatu nahi bazuen, herri txikien defentsatik hasi behar zuen, Euskal Herria kasu...".

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

JON ANDER UBEDA KAZETARIA

Romangordo kasua

Ez da ohikoa Andoaingo Udalaren komunikazio sailetik bidaia baten berri eman eta 48 ordura bidaia hori bera bertan behera geratu dela iragartzea. Bereziki kanpora egiten diren bidaiak gutxi izaten direlako. Eta normalean bidaia horiek iragartzen direnerako xehetasun guztiak lotuta egoten direlako. Zerbait pasa zen maiatzaren 16aren eta 18aren artean, Udalak Caceres probintziako Romangordo herrira egin behar zuen bisitaldia bertan behera geratu zela iragartzeko.

Egun batzuk lehenago, hango alkate eta era berean Caceres probintziako diputatu nagusi den Rosario Corderok Ana Carrere alkateari eta Esti Mujika kultura zinegotziari Ruta de los Ingleses ospakizunera hurbiltzeko gonbidapen formala luzatu zien. Hiru ordezkari politikoez izatik elkar ezagutzen dute, Cordero anderea Andoainean izan zelako. Andoaingo Udalak eta Aldundiak harrera ekitaldia egin zioten 2017ko ekainaren 3an, udaletxeko pleno areto nagusian. Denis Itxaso sozialista bertaratu zen Aldundiaren izenean. Andoaingo aginte gorenana Ana Carrere alkatea izan zen. Ekitaldi horretan, Extremaduran jaio eta Andoainean bizi diren askoren artean poza nabarmena zen. Dena esatera, 2017ko bisitaldi hura prentsak jaso zuen. Normaltasun osoz igaro zen.

Joan zen asteburuko bidaia hori bertan behera geratzeko zer gertatu zen, orduan? Deigarri egiten zitzaidan. Ez nuen lan handirik hartu behar izan, pista Facebook sarean topatu nuelako. "Oso haserre nago Romangordo herriko sozialistekin", idatzi zuen maiatzaren 17an Estanis Amutxastegi alkate ohiak. Facebooken dituen hainbat lagun arrazoiagatik galdezka hasi

zitaizkion eta honek DVko Andoaingo kronika irakurtzeko erantzuten zien. Egun horretan, kronika horretan, Romangordorako bidaia instituzionala zen albiste nagusia. Ordu gutxira, Ana Carrerek eta Esti Mujikak Romangordora ez agertzeko telefono deia jaso zuten.

LERROARTEAN ULER DAITEKE ARAZOA DELA PSOEN BATEK EH BILDUKO BIRI HARRERA EGITEA

Antza, lerroartean ondoriozta daitekeenagatik, PSOeko kargu ofizial batek EH Bilduko biri harrera egitea arazoa da.

Anai izan daitezkeen bi erakunde instituzionalen arteko harremana etetea lortu dute, Extremadurako jatorria duten andoaindar batzuren ilusioa zapuztearekin batera. Bizikidetzan eta adiskidetzan EH Bilduri gabeziak leporatu nahi dizkionari erraz jarri diote erantzuna. Hortxe dago Romangordo kasua.

SAREAN

Bertako produktuak sustatzeko ekimena

BETERRIKO.EUS

Beterri-Buruntzako Udalek, Beterri Km0 proiektua martxan jarri berri dute, nekazal ekoizpena kontsumitzaileen esku jartzeko helburuarekin. Aurkezpen ekitaldia Hernanin egin zuten eta bertan izan ziren Beterri-Buruntza Udalak erakundeko lehendakari den Jon Zulueta, Hernaniko tokiko garapenerako agente den Andoni Egia, Karabeleko Oier Iurramendi eta Behemendiko Juan Kruz Alberdi.

Hernani, Urnieta, Usurbil, Astigarraga, Lasarte-Oria eta Andoain herriek osatzen dute Beterri-Buruntza eskualdeko nekazal sektorea, merkatal sektorea eta ostalaritzaren sektorea sustatzeko proiektua. Jon Zuluetak, eskualdeko



Udal ordezkariaren izenean azpimarratu zuenez: "Jantoki publiko guztietan klausula ambientalak ezarri eta tokiko administrazioek bertako ekoizpena kontsumitu, erabilgarriak diren lur publikoak nekazaritzara bideratu, eta sektorea sustatzeko beharrezkoak

diren baliabideak eskaintzeko konpromiso publikoa hartzen dugu publikoki".

Ekimenaren bitartez, janari denda, jantoki publiko zein taberna eta jatetxeetan bertako produktua saltzea erraztuko da. Leku horietan, Beterri Km0 zigiluarekin bereizi eta identifikatuko direnak, kontsumitzaileak bertako produktua modu errazean eskuratu ahal izango du.

Beterri Km0-ren pegatina erakusten duten jatetxe, jantoki publiko, denda zein tabernetan bertako produktuak kontsumitu ahal izango dira, beraz, hemendik aurrera. www.beterrik0.eus webgunean ezagutu daitezke xehetasun guztiak eta proiektuaren parte diren ekoizleak.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea:

Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetak:

Garbiñe Ugarteandia.

idadkaritza@aiurri.eus

publizitatea@aiurri.eus

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnieta).

Diseinua:

Goiena Komunikazio Taldea

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus

Whatsapp: 619 163 537

Lege Gordailua:

SS-1078/04.

ISSN:

1698-4870.

Tirada:

4.000 ale.

Inprimategia:

Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTAK

"Zaila da Ozaeta hurbiltzea; Frantziako sistema matxista da"

KRISTINA RODRIGUEZ ETA ARANTXA IRIGORAS OZAETAREN ALDEKO EKIMENA

Olatz Lasa ANDOAIN

Hamar urte dira Ainhoa Ozaeta andoaindarra espetxeratu zutenetik, eta haren aldeko babes taldeak ekimen sorta antolatu du. **Zer da aldarrikatzen duzuen Ozaetaren espetxeratzearen hamargarren urteurrenarekin?**

K.Rodriguez: Maiatzaren 20an hamar urte bete dira Ainhoa Ozaeta atxilotu zutela. Iruditzen zaigu, egoerak horrela eskatzen duelako, badela garaia Ainhoa etxean izateko. Garaiak asko aldatu dira eta nahiko zigor beteta ere baduelako.

A.Irigoras: Lehendabiziko pausua gerturatzea litzateke, eta dituen neurri bereziak kentzea. Gehienbat etxeko eta laguntzat errazagoa izan dadin bera bisitatzea.

Frantziako espetxeetan presoek gerturatze batzuko izan dira. Ozaeta gerturatzeak aukera errealik ikusten al duzue?

K. R.: Frantziak oso sistema matxista du. Ainhoak Mont de Marsan-era gerturatzeak



Rodriguez eta Irigoras maiatzean zehar antolatu dituzten afitxekin batera. AIURRI

eskaera egin dauka, baina sistema matxista horrek ez dauka emakumeen modurik gertu. Gertuena Marsellan dago, eta urruti samar dago. Hortaz, oso zaila da gerturatzea.

Larunbat honetarako giza katea antolatu duzue. Ekitaldiaren nondik norakoak aurreraterik bai?

K.Rodriguez: Ekitaldi xumea izango da, aurretik egin den sortari amaiera emango

diona. Basterotik Zumearako giza katea egingo dugu, eguerdiko 12:00tan hasita. Bukaeran, ekitalditxoa egingo da, batez ere hitza hartzeko. Ainhoak 10 urte daramatza espetxean, fisikoki nahiz psikologikoki senideek eta bai berak dituzten karentzia eta sufrimenduak zenbaterainokoak diren aldarrikatuko dugu, eta gero, abestiek amaituko da berari eta senideei babesa emanaz. **Nola bizi ditu aste hauek presoak berak?**

A.Irigoras: Beti esan digu lehenik preso guztiak kontutan eduki behar ditugula. Momentu honetan berarekin gogoratzea tokatzen zen, eta kostata, baina onartu du herritik antolatu dioguna. K.Rodriguez: Poza eta indarra ematen dio babes hori edukitzeak. Gure bitartez hainbat aldarrikapen egingo ditugu, berak ezin duelako. Lehena, gerturatzearena. Mont de Marsan espetxera eskaera egin du, eta horretan guk lagundu behar diogu. Bigarrenik, 2022. urtera arte klausula bat ezarrita dauka, edozer gauza gertatuta ere urte hori arte ezin duena kalera atera zehatzen duena. Hori kentzea eskatzen du, eta horretan ere lagundu behar diogu.

HAU ERE BADUGU!

Sutea Ama Kandida etorbidean



Sutea gertatu eta minutu gutxira herrikide batek Aiurrira helarazi zuen bideoa. Eskerrak eman beharrean gaude informazioa helarazten digutenei, denen artean gizartea albistearen harian egotea lortzen ari baikara. Zer esanik ez, sutearen bideoa eskegi zen unetik beretik bisita ugari dituela.

Kirol mailako albisteak sarean



Maila eta lehiaketa ezberdinetan Andoaingo eta Urrietako kirolariak albiste onak eskaintzen ari dira. Bistan da, sasoi honetan, kirol taldeak sare sozialetan ohikoa baino gehiago nabarmentzen ari direla. Euskaldunako infantil mailako lortzen oihartzun zabala izan du. Zorionak!

Renfeko pasabidea

DVn zabaldu zen albistea: Adifek Andoaingo tren geltokian lurrazpiko pasabidea eraikiko duela iragarri du. Gutxira, Andoaindarras y punto FB orrialdean herrikide batek hausnarketa egin zuen. Pasabidearekin ados zegoen, baina kritika egiten zuen: "Aulki gurgildunean dabilenak zertarako nahi du pasabidea? Trenak eurentzat egokitzen ez dituzten bitartean, ezinezko izango zaie trenera igozea".

DATUAK

Kultura politikoa

Gipuzkoarren kultura politikoa buruzko inkesta aurkeztu zuen duela gutxi, Aztiker erakundeak. 1.500 gipuzkoarrekin egindakoa, hauxe ondorio nagusia: gizarte moderno, konplexu eta indibidualizatua dela gurea. Politikagintzaren ikuspegiari dagokionez, hiru jarrera nabarmentzen dira: haserre (%50,8), konfiantza eza (%46,21) eta asperdura (%28,7).

Aitzitik, gizarteko edozein elkarteko kide izateari lotzen den 'kapital soziala'ri dagokionez, Gipuzkoan bigarren agertzen da Europan, Finlandiaren ostean.

GORA ETA BEHERA



Arropa edukiontzitik atera eta lurrean botata utzi

Erabiltzen ez duten arropa dagokion edukiontzian sartu ohi dute herrikide askok, beharra duten beste batzuk berrerabil dezaten. Tarteka, edukiontzi horietatik hainbat pertsonak arropa atera ohi dute, gogoko edo behar ez duten hori lurrean botata utziz. Jokabide txukunagoa behar da, arropa hori busti edo zikindu ez dadin.



Talde lanean dago etorkizuna

Talde lana bultzatzea helburu duen "Bloc-tak" sisteman murgildu da Leizaran Institutua. Joan zen ostiralean Suediako zenbait ikastetxe bisitatzera abiatu ziren ikasketa burua eta bi irakasle

Olatz Lasa ANDOAIN

Suediako ikastetxe ezberdinak bisitatzera joan dira Josebe Amondarain Leizaran Institutuko ikasketa burua, Josune Iñarra eta Leontxo Valverde irakasleak. "Bloc-tak" izeneko sistema gertuagotik ezagutzea da helburua, etorkizunean Leizaranen ezarri dadin. Xabier Herrera irakasleak azaldu duenez, "web baten parekoa da. Ikasleek egin beharreko lanak agertzen dira bertan, beti ere euren autonomia bultzatzeko helburuz. Erronka bakoitzean helburu jakin bat dute ikasleek, eta hori lortzeko 9 pausu jarraitu behar dituzte, horretarako beharrezkoa den material guztia bertan dutelarik". Ikasleek eduki duten erantzunaz galdetuta, "uste baino parte-hartze positiboagoa" izan dela adierazi du Inge Fernandez irakasleak. "Azterkatari ez dagoenez, ikasleek inplikazio handiagoa erakusten dute talde lanerako".

Herriko kultura sustatzea helburu

Andoaingo ezagutza areagotzeko proiektu ezberdinak landu dituzte; esaterako, Leitzarango harana aztertu dute edota zuhaitzen inguruko lanak egin dituzte. Bestalde, Andoain energia berriztagarri nola hornitu daitekeen ere ikasi dute. "Ikasleek mugimendua behar dute, ezin dute lau hormen artean egon une oro", dio Herrerak.

Herriko kultura sustatzea etxetik hasi behar delakoan dira, seme-alabei txoko ezberdinak ezagutzeko kuriositatea piztuz; "guraso gehienak euren egunerokoa sartuta bizi dira, eta ondorioz eskolak hartu behar du paper hori", azaldu du Herrerak. Erakundeen laguntza ezinbestekoa dela azpimarratu du Fernandezek: "Sistema eredu hau errealitate bihurtu nahi badugu, erakunde ezberdinen laguntza eta babesa behar dugu".



Xabier Herrera eta Inge Fernandez Leizaran Institutuko irakasleak. AIURRI



Maila ezberdinetako ikasleen artean zaindutako baratzea. AIURRI

Baratzea eta liburutegia

Maila ezberdinetako ikasleen arteko harremanak sendotzeko bide da Leizaran Institutuko baratzea. Elkarren artean zaintzen dute, maila ezberdinetako ikasleez osaturiko talde txikietan bilduz. "Taldea txikietan bilduz errazago hausten da adinaren horma", adierazi du Xabier Herrera irakasleak. Baratzetik lortzen dituzten produktuak saldu egiten dituzte ikas bidairako dirua lortzeko.

Horrez gain, liburutegia Institutuko txokorik bisitatuenetakoa bihurtu da aurtengoan. Izan ere, goitik behera berri berritu dute liburuak katalogatuz eta berriak gehituz. Inge Fernandezek azaldu du ikasleen eskariari eman diotela lehentasuna, argudiatuz ikasleek irakurri nahi dituzten liburuak eskaintzea garrantzitsua dela. Modu horretan, jolas orduetan liburu munduan murgiltzeko leku aproposoa dute. Zenbait ordenagailu ere badaude.

Egunean eguneko albisteak sarean



Sutea zabor kamioian



Pailazoaren saioa Urnieta



Euskal Frouzen antzezlan



Txistularien bilkura Urnietan

Ekainaren 10a helburu

Urnietako Gure Esku Dago ekimena asteak daramatza sentsibilizazio lanetan, eta joan zen larunbatean, kultur eragile ezberdinen parte-hartzearekin "Klik eguna" antolatu zuten. Izena emateko garaia iritsi da, ezarritako helburuak lortu nahi badira



"Klik eguna"ren amaiera ekitaldia taldeko argazkia ateratzea izan zen. Irudian, ekimenarekin bat egin zuten herrikideak.

Erredakzioa URNIETA

Ekainaren 10a gerturatzen ari da, Gure Esku Dago ekimenak Donostia, Bilbo eta Gasteiz eskuz esku lotu nahi dituen. Nazio mailako antolakundearen arabera, urnietarrek Usurbilgo Agiñan kilometro erdia bete behar

dute. Horretarako 250 lagunengoa parte-hartzea beharrezkoa izango da. Agiñara joateko autobusak goizeko 10:00etan aterako dira Denda Berritik eta, ekitaldia amaitzean, autobusak berriro Urnietara itzuliko dira. 12:30etik aurrera izango da itzulera.

Izena emateko aukera ugari

Karpa: Guria aurrean, ostiralean, 18:00tik 21:00era. Xauxar ondoan, larunbatean, 12:00tik 14:00ra eta San Juan plazan 19:00tik 21:00era.

Saltokiak: Kantoi, Xauxar, Bikain, Muazpi, Itsaspe, Elorri eta Trazos.



SARE

Sare herritarraren ekitaldia

Andoaindik, Urnietatik eta Beterri-Buruntza osotik Santa Barbarara igo ziren Sare herritarra ekimeneko hainbat kide. Presoen eskubideen alde ekimen sorta antolatzen ari dira, maiatzean zehar. Larunbatean oinez igo zirenek kultur ekitaldiaz gozatu ahal izan zuten. Besteak beste, Joxe Fermin Argiñarena bertsolariak parte hartu zuen eta baita Joxe Mari Agirretxe "Porrotx" pailazoak ere. Datorren maiatzaren 30an, Sareko bozeramaileetako den Joseba Azkarragak hitzaldia eskainiko du Lekaion, iluntzeko 19:00tan hasita.



Jolastoki estaliaren ikuspegia, jendez gainezka, pailazoaren emanaldian. AIURRI

Emanaldi gogoangarria, haur eta guraso askorentzat

500 lagunetik gora hurbildu ziren Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren emanaldi berriena ikustera

Erredakzioa URNIETA

"Borobilean" ikuskizunak taldeari eman nahi dio garrantzia, elkar adosteari eta bizikidetzari. Maribel andereñoaren laguntzarekin, hiru pailazoek Jeronimoren jokabidea zuzentzea lortzen dute. Horrexegatik, zabalitzen duten mezuagatik, Urnietako emanaldia gogoangarria izan zen bertaratu ziren haur eta gurasoentzat. Emanaldian

Urnietako haur asko ikus zitezkeen, baita Beterri-Buruntzakoak ere. Aiurrik antolatu zuen emanaldia, Udalaren laguntzarekin. Astekariak bere aldetik esker ona adierazi nahi die Udalari, Udal langileei, Egape ikastolari, sarrerak salgai ipini dituzten Xauxar, BKN, Ernaitza, Leokadisti eta Ttakun saltokiei. Eta, nola ez, bertaratu ziren haur eta guraso guztiei.



Eugeni laguna taula gainera igo zuten, pailazoekin batera kantatzera. AIURRI



Pailazoaren emanaldia amaitzean, muxuak emateari ekiten diote. AIURRI

Ekitaldiz beteriko asteburua aurretik

Gazte afaria, herri bazkaria, zuzeneko musika emanaldiak..., festa ziurtatuta izango da Urnietan, asteburu osoan zehar. Ostiralean hasita, gainera, adin tarte guztiak kontutan hartu dituzten ekitaldiak burutuko dira aurtengo Gazte festetan



Matraka elektro-txaranga kaleak alaituko ditu ostiral gauean. Elektro txaranga ohikoa bilakatu da azken urteetan. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Adinekoen ibilaldia ostiralean, Benjamin jaia larunbatean, jolasak haur eta gazteentzat, Zumbaton edota Reziklator erakustaldiak..., Adin tarte guztiak asetuko dituen egitaraua prest dute Urnietan. Aurten, gainera, ospakizuna herriko txoko ezberdinetara zabalduko dute. San Juan plazan burutuko dira ekitaldi asko, beste batzuk Egape ikastolako jolastoki estalian eta aurten beste hainbat ekitaldi gehiago Etxeberri plazan. Bertako auzo elkarteak larunbat arratsalderako sardin jatea, bingoa eta musika saioa antolatuko ditu.

Reziklator

Etxeberri plazan iragarrita dago larunbat arratsalderako, eta eguraldi txarrarekin tailerra Egapeko jolastoki estalira eramango dute. Reziklator ekimena 2-12 urte bitarteko haurrei zuzendurik dago, birziklapenaren garrantzia barnerratzeko sortua. Gorputz perkusioa eta musika tresnak elkartuko dituzte.

Lehenago Zumbaton eta Urnietan warrior ikuskizuna izango da San Juan plazan.



laz bezala, hainbat koadrila mozorrotuta ibiliko dira ostiral gauean. AIURRI

Mozorro festa ostiral gauean

Iaz Super heroiz jantzitako hainbat koadrila bildu zen Egape ikastolako jolastoki estalian. Aurtengoan, gai nagusia 'Euskal Artistak' dira. Gai irekia izanik, kirolari edota kultur munduko pertsonaia ezagunen mozorroak ikusi ahal izango dira gazte festen hasieran. Talde bakoitzak bere afaria egin beharko du, baldintza bakarrarekin: Plater guztiak osagai komuna izango dute, eta aurtengoan piperra izango da. Ehun lagun izena emanda daude gazte afarian, elektro-txarangarekin osatuko dena. Indartsu ekingo diote gazteek, beraz, aurtengo jaiari. Biharamunean, poteoarekin hasita, gazteek egun osoko ospakizunei ekingo diete. Herri bazkarian ere koadrila askoren parte-hartzea izango da. Ospakizuna egun osoan zehar luzatzeko aukera izango dute, eta gauean Fitoren kantu ezagunenean kantu eta dantza arituko dira.

GAZTE FESTAK EGITARAUA

OSTIRALA 25

11:00 Adinekoen ibilaldia.

16:30 Plazatik hasita, "Urnietan Challenge" jolasa.

16:30 Jolasak herrian zehar, 16 urtetik gorakoentzat.

18:00 Apaxi ipuin kontalaria Etxeberri plazan.

18:30 Sardina-poteoa, bingoa eta musika Etxeberri plazan.

19:00 Altxorraren Bila haurrentzat.

19:30 Buruhandi eta erraldoien kalejira, Bosko Anitz txaranga.

20:30 Txupinazoa udaletxean. Egape dantza taldea.

21:00 Bosko Anitz txarangaren kalejira.

21:30 Afari tematikoa Egapen: Euskal artistak.

24:00 Matraka elektro-txaranga.

LARUNBATA 26

09:30 Argazki Rallya.

09:30 Benjamin Festa kiroldegian.

10:00 Txanbolinekin, Diana.

12:00 Pailazoak Zubitxo plazan.

12:00 Poteoa, bazkaria eta jolasak.

16:30 Txirrindulari proba.

16:30 Zumbaton eta Urnietan Warrior San Juan plazan.

18:00 Reziklator Etxeberri plazan.

23:30 Tributo a Fito zuzenean.

IGANDEA 27

10:00 Txanbolinekin, Diana.

11:00 / 16:00 Puzgarriak Egapen.

12:30 Txanbolinen emanaldia.

18:00 Erraldoi eta buruhandiak.

19:00 DJ Mikel San Juan plazan.



Adinekoen ibilaldi neurtua

Denda Berri jubilatua eta pentsiodunen elkarteak antolatuta, hainbat herrietako ehundik gora lagun hurbilduko dira Urnietako osasun bideetan barrena 6,6 kilometroko ibilbidea osatzera. Goizeko 11:00etan irtengo dira Jubilatuen egoitzatik eta ondoren bazkaria egingo dute Oianumen.

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Zer moduz iritsiko zara Zegama-Aizkorri mendi lasterketara?

Ustez, ondo. Orain arte parte hartu dudana lasterketak eta entrenamenduak ikusita, ondo nagoela esango nuke. Egia da beldur pixka bat sartzen zaidala gorputzak bi ordu ta erditik aurrera nola erantzun duen pentsatzen hasten naizenean. Normalean bi ordu arteko entrenamenduak egin baitituz. Hortik aurrerakoak errespetua eragiten dit.

Nire aurtengo helburua Zegaman ez sufritzea da. Aurreko urtean azkarregi hasi eta Urbiatik aurrerako bidea oso luzea egin zitzaidan. Hasieran egur asko emateak bere ondorioak izan zituen.

Beraz, zalantza duzu azken zati horrekin.

Bai, aurreko urteko esperientzia kontuan hartuta, Aizkorriaraino ondo joango naizela espero dut. Lasaiago abiatuko naiz eta buruan denbora batzuk baditut ere, hortik aurrerako ikusgai da. Aurreko urtean baino gutxiago sufritu eta dortsala mantentzen badut, gustura amaituko dut lasterketa.

Zer egiten da tarteko egun hauetan?

Asteburuan etorriko zait Zegama burura, larunbatean dortsalaren bila joaten naizenetik hasita. Orokorrean, astea normal joango da. Astelehenetik ostiralera entrenamendu lasaiagoak eginez.

Zer da zuretzat Zegama-Aizkorri mendi lasterketa?

Mendi lasterketetan gabiltzanontzat ikustea besterik ez dago: 8.000 pertsona zozketan, dortsalaren bila. Hori zerbaitengatik izango da. Ikusten ere jende asko egoten da eta hori ez da lasterketa guztietan gertatzen. Paretik pasa eta zaletuen goxotasuna horrela sentitzea ez da normalena. Gainera mundu osoko jendeak etorri nahi izaten du lasterketan parte hartzera, Beraz, zerbait berezia duela esan genezake.

Urtarrilean, entrenatzen hasten naizenean, normalean

"IAZKO OROITZAPENA EZ DA BATERE ONA ETA EZ DUT BERRIZ ERE BERDINA PASA NAHI"

"Mundu osotik etorri nahi dute Zegama-Aizkorri lasterketara"

JON UGALDE ELOLA ANDOAINGO MENDI LASTERKARIA

LASTERKETA Talaia bidean eta beste hainbat lasterketetan aurrealdean ibili da Ugalde. Igandean Zegama-Aizkorri parte hartuko duen herrikide bakarrenetakoa da



Jon Ugalde andoaindarra. AIURRI

hori izaten dut buruan, "maiatzean Zegama korrituko dut". Hemen inguruan dugun lasterketa izanik suerte asko dugula esango nuke.

Zegamako lasterketaz gain, nolako lasterketak gogoko dituzu?

Talaia lasterketa gustura egiten dut. Ez da horrenbesteko desnibela duen lasterketa, baina itsaso mailara jaisten zara eta baditu bere zailtasunak ere. Horrez gain, Tolosaldeko hiru tontorrek lasterketa ere oso polita da. Bi aldiz bakarrik egin dut azken lasterketa hori, baina izugarri gustatzen zait.

Azken urteetako lasterketetan maila ona ematen ari zarela esango zenuke?

Bai, futbola orain dela zortzi bat urte utzi nuen eta betidanik gogoko izan dut korrika egitea.

Asfaltoan hasi nintzen korrika baina aspertu egiten nintzela ikusita, mendian proba egin nuen. Orain dela bost urte egin nuen nire lehengo Zegama-Aizkorri lasterketa eta egia esan, oso luzea egin zitzaidan. Gero ordea, pixkanaka-pixkanaka entrenatzen zoazela, hankak ere egiten joaten zaizkizu eta askoz ere politagoa egiten da lasterketa.

Kirol honetan eskarmentua izatea abantaila dela esan daiteke

30 urtetik gora ditugun korrikalariok lehenago beste kirol jarduera bat egin dugu. Orain

Eskualdekoen dortsalak

Andoaindarrak eta urnietarrak irtengo dira proba ezberdinetan.

Maiatzak 25. 16:00**Kilometro bertikala:**

90 Oier Escudero Andoain
195 Ion Rodriguez Urnieta

Maiatzak 27. 09:00**Mendi maratona:**

95 Xabier Almorza Urnieta
236 Beñat Erkizia Andoain
245 Unai Ezeiza Urnieta
246 Xuban Ezeiza Urnieta
363 Mikel Legarreta Urnieta
419 Iker Mujika Andoain
524 Jon Ugalde Andoain



hoberenak 30 urtetik gorakoak izan daitezke, baina seguruenik, orain dela 10-15 urte ez ziren korrika ibiliko. Orain, ordea, bada 16 urterekin mendian korrika hasten denik.

Aurtengo lasterketan baduzu konforme geratuko zaren denbora?

Batez ere, iazko sufrikarioa ez errepikatzen noa. Iazko lasterketaren inguruan ditudan oroitzenak ez dira batere onak eta ez dut berriz ere berdina pasatzerik nahi.

Zegamako lasterketa egin ostean atsedean hartuko al duzu?

Udan atsedena hartzea gogoko dut. Urtarrietik maiatzera gorputzari egur asko ematen diot eta Zegama egin ostean erreku-peratzea asko kostatzen zait.

Inguruko festetan antolatzen diren lasterketetan ikusiko zaitugu, ezta?

Bai, San Esteban jaietan eta Buruntzan ateratzen naiz, baina ez dut prestatu beharreko beste lasterketarik.

Igandean, gertuko zaletuak izango dituzu bide bazterrean...

Bai. Gurasoentzat Zegamako eguna sakratua da. Lehengusuak ere etortzen dira ikustera. Ondo datorkit puntu ezberdinetan ezagunak egotea, barritak edota ur botilak hartu ahal izateko.



Legarretak eskarmentu sobera du, edizio guztietan parte hartu duelako. Almortza, aldiz, lehenbiziko aldiz irtengo da zozketan dortsala tokatu eta gero. AIURRI

Jokin Lizeaga, esatari lanetan

Urnietarra, noski, ez da irteeran izango. Asturiasko istripua gertatu zenetik bi hilabete eskas pasa dira, eta osatze prozesuak bere bidea darama.

Lesionatuta ere, gertutik biziko du Zegama-Aizkorri maratoia. Euskal Telebistak proba eskainiko du, teknologia lagun, eta Lizeaga komentari lanetan murgilduko da, igandean bertan goizeko 11.00tan hasita.

Antolakuntzako kideek ere streaming bitartez eskainiko dute proba, eta emankizunean ere Lizeagaren iritzia jaso nahiko lukete. Korrikalaria ibilitakoa da esatari jardunean, eta arazorik gabe moldatzen da kazetaritza jardunean, burua eta mingaina hanka zuztarrak bezain azkarrak baititu.

Andoni Urbistondo URNIETA

Maiatzeko azken asteburua sakratua bilakatu da Euskal Herriko mendi lasterkarientzat. Azken igandean Zegama-Aizkorri maratoia egiten baita Euskal Herriko mendikate ederrenetakoan barrena, eta hura korritzea, bukatzea, amets, erronka itzela bilakatu da Euskal Herriko eta atzerriko korrikalari askorentzat. Puntakoak, erdi mailakoak, edo maila apalagokoak izan. Urteko egutegiko lasterketa maitatuena da askorentzat. Hura korritu arte erretirorik lasai ezin dela hartu esan ohi da korrikalarien munduan, eta xarma berezi horren erruz edo ondorioz, dortsala lortzeko asmo xumea Aizkorriko kilometro bertikala korrika igotzea baino lan nekosoagoa bilakatu da.

Izan ere, 500 dortsal bakarrik daude eta antolakuntzak beretzat gordetzen ditu asko: nazioartean punta-puntan dabilen korrikalariak, aurreko urteko ekitaldian parte hartu eta ehun onenen artean sailkatzen direnak,... 225 dortsal zozketatu zituzten otsailaren amaieran alde aurretik izena emanda zeuden 8.500 la-

Amets bat, mila bizipen

LASTERKETA Igandean jokatu da Zegama-Aizkorri mendi maratoiko hamazazpigarren edizioa. Lau urnietar ariko dira: Mikel Legarreta, Xuban eta Unai Ezeiza, eta Xabier Almorza. Horien guztien artetik maratoi guztiak korritu dituen Legarreta da

gunen artean. Dorsal bat tokatzeko aukera, beraz, %2.5ekoa izan zen. Urnietan, hainbatek eman zuten izena, baina bakarrak izan du zorte hori: Xabier Almorzak.

"KORRIKALARI GUZTIEN %1A URNIETAKOA IZATEAK ZER PENTSATUA EMATEN DU"

Beste hirurek ziurra zuten dortsala: Mikel Legarretak ekitaldi guztietan parte hartu delako, eta Xuban eta Unai Ezeizak iaz Zegamako plazan ehun onenen artean helmugaratu zirelako. Mikel Legarretak 16 ekitaldian parte hartu du. Den-denak! Hori egin duten dozena erdi lagun baino ez daude, eta horietako bat da Legarreta. 36 urte betetzear, hamaseigarrena korritzeko prest da. Pixkanaka txispa pixka bat galtzen ari dela onartzen badu ere: "Ilusioa gal-

tzen zoaz, ez daukazu hasierako su hori, baina tira ilusioa mantentzen dut". 2002an, lehen ekitaldian, Legarretak Zegama-Aizkorri oinezko proba zela pentsatzen zuen, "baina korrika hasi

"SANCTI SPIRITUKO ALDAPAN AIREAN ERAMATEN ZAITU JENDEAK. OSO SENTSATIO EDERRA"

zen jendea, eta ni, ba haiei se-gika. Betidanik eduki izan dut harreman estua Aizkorri mendiarekin, Iñaki Aranzadi Urnietako apaiza zenarekin hara joaten bainintzen sarri".

Bizikleta utzi berritan, jubenil mailan, Urnietako plazatik Adarramendira egiten zen proba egin zuen: "Jakin nuen maratoi bat korritzen zela. Orduan egoe-ra diferentea zen. 6 ordu eta erdian edo egin nuen, eta lehen ehunen artean sailkatu. Egun 5 ordutan egiten dut, eta atzerago sailkatzen naiz". Garai hartan Adarra, Bera eta beste lasterketaren bat zeudela gogoratzen du, eta "orain astebururo hiru edo lau ditugu". Distantzia arloan ere bilakaera handia izan dela dio: "Aizkorri korritzea kristoren eromena zen hamarkada bat atzera, orain 70-90 kilometroko proba asko daude".

Parte hartzeak eduki duen igoeraz honako hausnarketa egiten du: "Lehen Aizkorri irtetzen ginenak mendizaleak ginen, baina orain korrikalariak gara. Begira Urnietan, zenbat jende dabilen mendiko maratoiak egiten. Dozena inguru lagun

bagara, Aizkorri nahiko eroso bukatuko genukeenak. Esanguratsua da. Korrikalari guztien %1a Urnietakoa izateak zer pentsatua ematen du. Batzuk ezin dute atera, hori da tristeena. Igor Amantegi Potti edo Unai Martinezekin gogoratzen naiz, maila nahikoa eta sobera eduki, eta ezin irtengo direlako dortsalik ez daukatelako...". Eta horren aurrean zer? "Onartua dute egerra. Ezin dira mila pertsona sartu Aizkorri: hornidura, laguntza zerbitzuak..., segi dezatela saiakera horretan eta halakoren batean tokatuko zaie. Xabier Almorzari 7 urte zain egon eta gero tokatu zaio dortsala. Gutxien espero duzunean etor daiteke saria".

Urduritasunean itota

Txanponaren beste alde bizitzen ari da Xabier Almorza (44 urte). Etsita zegoen erabat, baina gutxien espero zuenean, loteria modukoa tokatu zaio: "Lagunen whatsapp talde batean jakin nuen. Ea txantxetan ari ote ziren, ez zela bromarako kontua. Dardarka jarri nintzen, eta ordu laurden pasa arte ez nintzen jabetu". Asteburutan egiten ditu prestaketa saioak: "Lana goizetik gaue-ra egiten dut, eta libratzeko komeriak ditut. Orain, Zegama maratoiarekin, saiatu naiz asteen zehar gehiago libratzen, baino gutxitan. Ez nau momentu onenean harrapatu". Oinarri hori betidanik eduki izan du, baina Aizkorri-rako justu samar iritsiko omen da. 20 urterekin hasi zen asfaltoan, eta mendira joateko ohitura, betidanik, igandetan. "Leitzara joaten nintzen mendiz mendi, korrika, eta handik Tolosara autobusean, eta



Tolosatik etxera trenean, 15-16 urterekin. Hori sakratua zen".

19 urterekin egin zuen lehen Behobia-Donostia, asfaltoan sekula ibili gabe. "Biharamunean bai agujetak!". 1.22 egin zuen, asfaltoan entrenamendu bakarria eginda abiatu bazen ere. Ordukit aurrera dozena bat Behobia badiu, gutxienez, eta marka onena, 1.13. "Bi alditan". Ez du mendi maratoirik inoiz egin. 33-35 kilometro, asko jota. Ilusio latza egiten dio Zegama-Aizkorri mendi maratoiak, "baina zalan-tza eta beldur apur bat ere sortzen dit. Umila naiz oso berez, eta erronka potoloa da niretzat".

Ezeizatarrak: Xuban eta Unai

Abizen bera dute, baina ez dira senide. Antzekotasunen bat, izatekotan, biak ala biak mendian gora suziri baten pare ibiltzen direla. Iaz parte hartu zuten lehen aldiz, eta ehun onenen artean sailkatuta, errepikatze-kotan dira. Bata eta bestea, ordea, gaua eta eguna bezala iritsiko dira maiatzaren 27ra. Unai Ezeizak lau ordu eta erdi egin behar izan zituen iaz, baina aurten lanak izango dituela uste du: "ez nabil gustura, belauna batzuetan, orkatila besteetan... korrika egiten uzten didan mina da, bai-

na beti hor dagoena, maldan behera batez ere. Molestia da, baino ez da desagertzen. Medikutan nabil, ea ba zeozer hobetzen dudan. Entrenamendu gorrak egin nahi eta ezin nabil, motibazio edo gogorik gabe. Urtea ere pattal samarra izaten ari da hainbat kontugatik".

Txar-txarrean, "nahi dut Zegama egin, poz pixka bat sentitu, bolada txar hau ahazte alde-ra. Buruak ere bere lana egiten du, eta. Minarekin-eta ari zarenean, goiz-goiz jaiki eta gorputza zigortzera joan baino, ohean etzanda geratzeko esaten dizu". Unai-ekin parrandero sona du: "Bai, bai, banaiz", onartzen du, baina halere, korrika kideen miresmena eragiten du. Galdetzen diozunari galdetuta esango dizu: "Ezeiza? Nahi duena eta gehiago ibil daiteke". Horren aurrean, zera dio korrikalariak: "Berezko zerbait badut. Lagunekin entrenatzen dudanean jabetzen naiz, gutxiago arituta, haien maila lortzen baitut". Berezko gaitasun horrek ere igandean bultzadaxoa eman diezaiokeelakoan dago.

Xuban Ezeiza ikasle gazteen zurrumbiloen murgilduta dabil Erasmus urtean, Granada aldean. Heziketa fisikoa ikasten, Urnietara bueltatzeko egunak bilatu ezinik dabil. Entrenatzeko toki aproposa bilatu du Espainiako txoko hartan: Sierra Nevada edo mendikate hori inguratzen duten ehunka pistatan. Ez dio garrantzia berezirik ematen Zegama-Aizkorri maratoiarik: "Polita da, noski, ilusioa egiten dit, baina Asturiaseko edo Orioko proba bat korrituko banu bezala". Xuban gazteak Sancti Spirituko aldapa, Aizkorri gailurrera iritsi zeneko iazko uneak ditu gogoan: "Airean eramaten zaitu jendeak, eta hori oso sentsazio ederra da". Antzeko oroitzen du Unai Ezeizak. "Kristoren sentsazioa da. Nola edo hala korritu nahi duzun proba da. Beti joan izan naiz ikustera, Aizkorriko gailurrera, eta pentsatu, 'gustura egingo nuke korrika hemen'... Iaz pasa nintzen eta, ufa! Oilo ipurdia jarri zitzaidan... hori bizitzea ikaragarria da, bultzada hori sentitzen duzu Otzaurten, Sancti Spiritun, Aizkorri, Urbian...".

Bukatzea, gehiegi ez sufritzea...

Erronka aski ezberdinak dituzte lauek. Unai Ezeizarena aurten gozatzea da: "Denbora mugarik



Unai Ezeiza urnietarra Adarran gora, Urnietako mendi lasterketan. AIURRI

gabe, hanketan-eta nekea sentitzea soilik, ez mina. Hala balitz, gustura nengoke".

Legarretari oso luzea egiten zaio maratoia: "Nola atera, erabakigarria da. Tiroa bezala atera izan naizenean, probaren erdialdera ordaindu egin dut". Urbian omen, giltzarria: "Urbian korrika egin behar da, aurrera egiteko, baina 25 kilometrotik gorako zama daramazu hanka zuztarretan eta han oinez bazoaz, mundua gainera etortzen zaizu". Bada, oraindik, Legarretari harrizten duen detaila: "Zegama herria bera. Hain herri txikia izanik -1.500 biztanle-, lasterketa erraldoia hain ondo antolatzeko gai da. Ez orain bakarrik, duela 15 urte ere bai. Eta ze giro jartzen duten herrian. Entrenatzera joaten zara hilabete lehenago, eta herriko plazan dauden lau aitona galdezka etortzen dira, ea nongoa zaren, ze asmo duzun eta beste. Herri osoa murgiltzen da maratoiko antolakuntzan".

4.47ko denbora egin zuen iaz Xubanek: "Oso gogorra eta luzea egin zitzaidan, baina polita". Disfrutatzea du helburu. "Iaz, nerbioengatik edo, Aizkorritik

aurrera asko sufritu nuen. Ondo iritsi nahiko nuke gailurrera, eta gero denbora hobetzen saiatu". Fisikoki oso indartsua da, eta indarrak ondo neurtzen badiu, iazko denbora berdindu edo hobetu dezakeelakoan dago.

Denetan umilen Xabier Almorza mintzo da. "Ondo bukatzea, duintasunez helmugaratzea. Kito. Behobia batean muga-mugan iritsi nintzen, eta ez dut sentsazio txar hori berriz ere bizi nahi".

Almorzak bazeukan kezka buruan, elkarrizketa egin zen egunean, bi aste atzera. Mikel Legarretarekin hitz egin nahi luke, haren esperientziaren berri zehatz izan, probako sekretuak kontatzeko eta beste, baina ausardia falta omen zuen: "Nor naiz ni Legarretari probaren inguruko gauzak galdetzeko? Esango du... apurua ematen dit!".

Hortxe eskarmentuak erakutsi duena: Sancti Spirituko aldapan, herriko lagunak oihuka ikusten dituztenean, patsada edukitzea. Eta Aizkorri-rira bidean sobera ez berotu. Urbiara sendo iritsi. Eta handik jaitsi, eta iritsi. Txukun. Zutik. Sendo. Hegan egiteko! Amets egiteko!



Xuban Ezeiza Urnietako mendi lasterketa egin zen azken edizioan. AIURRI



Jubenil mailakoek ondo ezagutzen dute Urnietako futbol zelaia. Ligaskako azken aurreko partida bertan jokatu zuten. EUSKALDUNA

Onenen finala Urnietan

FUTBOLA Jubenil mailako igoera fasean multzo bakoitzean lidergotzan amaitu duten taldeek finala jokatu dute larunbat honetan Urnietan, arratsaldeko 17:30ean hasita. Euskalduna eta Donostialdeko Ekintza nor baino nor arituko dira

Erredakzioa ANDOAIN

Euskaldunakoa, oro har, denboraldi ona izaten ari da. Guztien artean nabarmentzen ari den taldeetakoa jubencil mailako Euskalduna A taldea da. Joan zen asteburuan ligaska amaitu zuten, lehen postua nagusitasun handiz eskuratuz. Talde berean Urnieta A taldea lehian izan da. Pablo de Torresen mutilek azken ordurarte buruz burukoetan aritzeko aukerak izan dituzte,

baina azkenean laugarren postuan amaitu dute. Zestoaren aurkako partida irabazi beharra zuten, eta era berean Lezoko Allerruk berea galdu behar zuen. Bada, ez zen ez bata eta ez bestea gertatu. Urnietarrak lehiatik kanpo geratu dira. Hori bai, euren zelaian larunbat honetan mailako bi talde onenek finala jokatu dute arratsaldeko 17:30ean hasita. Onenen arteko finala izango da.

Euskalduna eta Ekintza finalean

Bakoitza bere multzoan lehena izan denez, bi taldeek igoera ziurtatuta dute. Larunbatean jokoan izango dena ohorea izango da, mailako onena nor den partida bakarrera erabakiko baita. Paperean oso final orekatua izango da. Bi taldeak nola iritsi dira honaino? Biak hamalau partida irabazita. Ekintzak hiru partida galdu ditu, eta Euskaldunak soilik bi.

Euskadiko txapelketan

Infantil mailako taldea denboraldi borobila egiten ari da. Euskaldunakoek 1go mailan ez dute partidarik galdu, eta finalean mailako onenaren saria eskuratu zuten Aloña Mendi garaitu eta gero. Ospakizunak amaituta, igandean Euskadiko txapelketari ekingo diote. Lehen aurkaria Arabako txapelduna izango da, eta hurrengoa Bizkaikoa.



EUSKALDUNA



Jon Lertxundi, Unai Barberena, Haritz Goikoetxea eta Mikel Campos. IDOIA GONZALEZ

Urnietarrak nabarmendu ziren eskolarteko padel txapelketan

PADELA Alebin mailako Gipuzkoako eskolarteko padel txapelketako finalean lau urnietar aritu ziren

Erredakzioa URNIETA

Lau urnietar gazte izan ziren aurreko asteburuan Donostiako Etxadi kiroldegian jokatu zen padel txapelketako finalean. Guztira bederatzik bikoteak parte hartu zuten eta horietatik bi urnietarrak ziren: Haritz Goikoetxea eta Unai Barberena alde batetik, eta Jon Lertxundi eta

Mikel Campos, bestetik. Bikote bakoitzak zegozkien partidak irabazi ostean, finalean elkartu ziren. Garailea, Haritz Goikoetxea eta Unai Barberenak osatutako bikotea izan zen. Emozio eta lehiakortasun handiko partidua izan zen, non besteak beste, laguntasuna izan zen nagusi. Zorionak lauei!



40 km/h-ko abiadura lor dezakete, pistan. IRRISTAKA

Gipuzkoako irristaketa txapelketa, igandean Allurralden

PATINAI II. Gipuzkoako txapelketa jokoan izango da, alebin mailatik hasi eta master mailara bitarte

Erredakzioa ANDOAIN

Lehiaketa igande goizean abiatuko da, 10:30etik aurrera. Gipuzkoa osotik etorriko dira, gainera. Hauexek izango dira parte hartuko duten klubak:

Irristaka, Donostiroller, Itsasmendi, Bera Bera, Hanka Labanka, Zarautz KE, Hernani KE eta Corsarios Vascos. 50 lehiakidetik gora, proba ezberdinak burutzeko.

Herriartekoan murgildu da Andoain taldea

PILOTA Eskuz binakako herriarteko txapelketan Zizurkilek aurrea hartu zion Andoaini, 1-2. Ostiralean Zizurkilgo Intxaur pilotalekuan itzuliko partidak jokatuko dituzte, 19:00tan hasita. Gomazko paletan, ostiralean 19:30ean hasiko da Andoain-Azpeitia lehia Arraten

Erredakzioa ANDOAIN

Zizurkilgo esku pilotariak gehiago aritu ziren, eta hiru partidetatik bitan gailendu ziren Arrate pilotalekuan ostiral ilunabarrean jokatu zen herriarteko txapelketan. 22-20, 3-22 eta 3-22 izan ziren emaitzak. Eñaut Etxeberria-Iker Uria, Urtzi Artola-Eneko Gomez eta Unai Etxeberria-Imanol Usandizaga bikoteak kantaratu ziren Andoain ordezkatzuz. Zizurkildik, berriz, Ander Perurena, Mattin Etxeberria, Julen Alberdi-Xabi Lasa eta Peru Labaka-Mikel Arrate izan ziren pilotariak.



Arraten, joanekoan, Andoain ordezkatu zuen seikotea.



Pala taldeko kideak, joan zen ostiralean Arrate pilotalekuan, Zumaiakoekin batera.

Ganbara saski taldearen denboraldi amaiera polita

SASKIBALOIA Pozik egoteko moduko albisteak eman berri dituzte Andoaingo Ganbara saskibaloitza taldeko kideek. Senior mailakoek mailari eutsiko diote, Larramendiren kantuan irabazi eta gero (54-59). Kadete mailakoek ere garaipena eskuratu zuten (45-64), eta horri esker hurrengo denboraldian maila bat gorago jokatuko dute.

Egokitutako kirol jarduerak

KIROL EGOKITUA Andoaingo Batzokiak antolatuta, egokitutako kirol jarduerak ikusgai izango dira Goikoplazan larunbat honetan egun osoan zehar. Herri askotako kirolariak hurbilduko dira eta jarduerak aurrera atera ahal izateko herriko hainbat kirol elkartet laguntza emango dute (Ganbara, Gazteleku, Zumeatarra,...). Jaialdia Gipuzkoan erreferentzia bilakatu da.



AIURRI

Sari berria Nahikarirentzat

FUTBOLA Nahikari Garcia urnietarrak harrobia sustatzen duen Futbol Draft ekimenaren eskutik saria jaso du. Real Sociedad taldeko jokalaria Kopan murgilduta dabil, itzulerako partidaren zain. Joanekoan 1-2 galdu zuten Zubietan Athleticen aurka eta itzulerakoan ezustea eman nahiko lukete. Ligan pattal hasi arren, amaiera polita eman diote.



REAL SOCIEDAD

KARTELDEGIA

FUTBOLA	
PREFERENTE MAILA	
EMAITZA	
Euskalduna-Elgoibar	1-1
ASTEBURUKO PARTIDA	
17:30 Elgoibar-Euskalduna / Lar, 26	
IGOERA FASEA, NESKAK	
EMAITZA	
Beti Gazte-Urnieta	3-1
1. MAILAKO FINALA	
19:30 Urnieta-Ostadar / Ostirala, 25	
JUBENIL MAILA, MUTILAK	
IGOERAKO LIGAXKA	
Zestoa-Urnieta A	1-0
Euskalduna A-Lengokoak B	5-0
SAILKAPENA	
1 Euskalduna A	44 puntu
2 Beasain	38 puntu
3 Allerru A	36 puntu
4 Urnieta A	31 puntu
JUBENIL MAILA, NESKAK	
EMAITZA	
Euskalduna-Axular	5-1
ASTEBURUKO PARTIDA	
16:30 Hernani-Euskalduna / Lar, 26	

KADETE MAILA, NESKAK	
EMAITZA	
Urnieta-Zumaia	0-6
ANDOAINGO ARETO FUTBOLA	
A TALDEA	
Lanbroa-Centro Extremeño	3-8
Ekhia-Dad Kutxa	3-4
Keler-Akerbeltz	4-7
Hogar Extremeño-Lanbroa	6-3
Dad Kutxa-Centro Extremeño	3-0
Ekhia-Txalaka	2-8
B TALDEA	
Academia London-Olajauna	4-4
Academia GF-Ganbara	0-4
Powerade-Ekaitz	3-6
Academia London-Ganbara	3-6
SASKIBALOIA, SENIOR MAILA	
EMAITZA	
Larramendi-Ganbara	54-59
KADETE MAILA	
EMAITZA	
Aletico-Ganbara	45-64
ESKUBALOIA	
KADETE MAILA, MUTILAK	
ASTEBURUKO PARTIDA	
11:30 Leizaran-Ordizia / Ig, 27	

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 25

URNIETA Matrikulazioa

Lourdes Iriondo Musika Eskolan izena emateko azken eguna.

Bertan, Lekaio.

URNIETA Ibilaldia

Adinekoena. Irteera eta bazkaria.

11:00, Denda Berri.

URNIETA Gazte Festak

Egitaraua osorik, 7. orrialdean.

20:30, Txupinazoa. S. Juan plaza.

LARUNBATA 26

URNIETA Argazki-rallya

Bi maila: gazteak eta helduak.

09:00, Lekaio.

ANDOAIN Giza-katea

Ozaeta preso politikoaren alde, andoaindar talde batek antolatuta.

12:00, Basterotik Zumea plazara.

ANDOAIN Ikastaroa Otieta

GPS ikastaroa. Izena emateko azken eguna, maiatzaren 24a. 943 300 929.

11:00-14:00, Bisitarien etxea.

ASTELEHENA 28

URNIETA Ballet saioa

Ikasturte amaierako erakustaldia.

18:00, Sarobe.

ANDOAIN Matrikulazioa

Galardi Haur eskola, ate irekiera.

16:30 eta 17:30, Galardi.



AJURRI

ANDOAIN Gure Esku Dagoren egoitza, ekainaren 10era begira

Zumea kaleko 5. zenbakian egoitza zabaldu dute. Bertan giza katean parte hartzeko izena eman daiteke. Baita Urrats, Li, Ernaitza eta Keinun ere.

Egoitza zabalik, asteartetik ostiralera, 10:30-13:00 / 17:00-20:00.

Larunbatero, 10:30-13:00.

ASTEAZKENA 30

URNIETA Hitzaldia

Sarek antolatuta, Joseba Azkarraga.

19:00, Lekaio.

OSTEGUNA 31

ANDOAIN Matrikulazioa

Goazen Jolastera: 2010-15 urteetan jaio direnentzat, goiz pasa ibiltzeko aukera ekainaren 26tik aurrera.

Gazte Lokala, Pio Baroja 1.

ANDOAIN Emanaldia

Musika eskolako abesbatza.

18:45, Bastero plaza.

LARUNBATA 2

URNIETA Urnieta dantzan

Egape dantza taldearen eskutik.


12:30, Plazido Muxika plaza.

ANDOAIN Erakusketa

Alberto Letamendiren artelanak ikusteko azken eguna.

Ohiko ordutegia, Bastero.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Un lugar tranquilo

Larunbata, 26:
19:30; 22:00.

Igandea, 27:
19:30.


Astelehena, 28:
19:30; 22:00.

Una razón brillante

Igandea, 3: 19:30.
Ig., 27: 19:30.
Astelehena, 4:
19:30; 22:00.

El doctor de la felicidad

Larunbata, 9:
19:30; 22:00.



SINOPSIAK



Una razón brillante

Zuz.: Yvan Attal. **Herr.:** Frantzia / Belgika (2017). **Iraupena:** 95 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

Abokatu izatea amets

Neila Salah-ek abokatu izatea du amets. Pariseko Zuzenbide fakultaterik onenean ikasten

du. Pierre Mazard irakaslea laguntza handiko pertsona izango da bere bidean.

'Gaztefunky zaleak' ikuskizuna

Saroben ikasturte osoan zehar trebatzen aritu eta gero, gazte funky taldeko kideek ikasturte amaierako erakustaldia egingo dute laster. Ekainaren 1ean izango da Saroben bertan, arratsaldeko 18:00tan hasita. Taula gainera igotzen lehenak

7 eta 10 urte bitarteko urnietarrak izango dira. Ordubate beranduago, 19:00tan, 11-16 urte bitarteko dantzariak arituko dira. Ordubeteko ikuskizun arin eta entretenigarria eskainiko dute, Judith Rodriguezen esanetara.

TTAKUNEK KUDEATZAILEA BEHAR DU

Elkartearen kudeaketaz, plangintzaz, antolakuntzaz eta jardun-ekonomikoaren kontrolaz arduratzeko. Baliabideak optimizatuz, plan estrategikoa garatuz...

- Ezinbestekoa:**
 - Euskara eta gaztelera ahos eta idatziz menperatzea.
 - Goi-mailako ikasketak izatea (goi-mailako zikloa, diplomatura, gradua, lizentziatura).
 - Talde gidaritzan eta euskalgintzan eskarmentua.
- Baloratuko da:**
 - Antolakuntza, komunikazioa, lantaldeen koordinaziorako eta giza harremanetarako gaitasuna.
 - Taldean lan-egiteko gaitasuna.
 - Egitasmo berriak sortu eta proposatzeko gaitasuna.
 - Euskara C1 edo C2 izatea.
 - Ekonomia ezagutzak: diru-laguntzetan eskarmentua, zuriaketak, aurrekontuak...
 - Ofimatika ezagutzak.



ZORION AGURRAK



ANDOAIN Ibai
Zorionak Ibai!
Andoingo zure familiaren partez! Asko gozatu zure eguna! Muxu pila.



ANDOAIN Aroa eta Libe
Aroak 5 eta Libek 3 urte beteko dituzte maiatzaren 29an eta ekainaren 8an. Muxu potoloak, etxeokak.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus
"Zorion agurra" atalean, fitxa osa ezazu. Urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus
Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora.
Arantzibia 4-5, behea
Etor zaitez bulegora.
Tel.: 943 300 732.
Whatsapez: 619 16 35 37

AZOKA

IRAKASKUNTZA

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantseseko** klaseak ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza praktika-rako, enpresetarako klaseak. 665 719 827 / 943 008 059.

LANA

Ikasle euskalduna ordu batzuk **lan egiteko prest.** 634 441 353.

AIURRI. AZOKA: diseinua@aiurri.eus

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 26 eta igandea 27
ANSA: Ondarreta, 8.
943 591 302. Andoain.

URNIETA

Larunbata 26 eta igandea 27
ALDABE: Perkaiztegi, 8 (Antziola).
943 336 022. Urnieta.
Gauetz, bi herrietan: Castilla.
943 552 941. Hernani.

Patziku Perurenaren azken lana
25 €

LEITZALARREKO UNAIK
1683-1771

Eskuratzeko:
bazkuna@larramendi.org
943 300 733 / 656 782 521
Aiurri: Arantzibia 4-5 behea. Andoain

SAIAKERA bildumako aurreko lanak ere eskuragai

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Herritarrek proposaturiko hamaika hobekuntza



Erredakzioa URNIETA

Udaleko Jorge Segurado Hirigintza saileko zinegotziak eta Mikel Pagola alkateak urte hasieran abiatutako parte-hartze prozesuaren emaitza aurkeztu zuten. Aurrekontutik 125.000 euro erabiliko dira herritarrek proposatutako egitasmoak gauzatzeko.

Hamaika egitasmo

Kutxaren atzealdeko arrapala hobetzea (25.000 euro), Txoritagaïndik Salesiar ikastetxera doan oinezko bidea konpontzea (25.000 euro), hobekuntzak Lizardi 1-3 kalean (10.000 euro), Arantzubi-Santa Leokadiako baranda berritzea (25.000 euro), Lekunen atsedeen-gunea egokitzea (2.500 euro), eserleku gehiago ipintzea (12.000 euro), txakurrentzat gunea egokitzea (3.000 euro), lore gehiago landatzea (5.000 euro), Eteneta elkartearen ondoan zebra-bide bat ipintzea (8.000 euro), Belandi-Akan kaleko seinalizazioa zuzentzea (1.500 euro) eta zebra bidea Pintore kalean (8.000 euro).

AZKENA



Haur, gazte eta heldu taula gainera igoko dira ikasturtean zehar landutakoa jendaurrean eskaintzeko. KATRAMILA

Asteburu Katramilatsua

Kalegiroan zikloa abiatu zen Andoainen aurreko asteburuan, kale antzerki emanaldi ezberdinekin. Asteburu honetan, Katramila taldeak ikasturte amaierako ospakizunak eskainiko ditu jendaurrean, saio batzuk Basteron eta besteak kalean eskainiz



Antzezlana ostegunetik larunbatera

Herrigunean zehar, antzezlana ikusgai:

Osteguna, 24:
"Katramilatuta" antzezlana.
Helduak.
19:30, Bastero.

Ostirala, 25:
"Beldurtxo...Uuuu!"
antzezlana.
Gazteak.
22:00, Bastero.

Larunbata, 26:
Katramila eguna.
• Haur ipuinak:
11:00, Zumea plaza.
• Kale antzerkia gazteentzat:
12:30, Bastero plaza.
• Bazkaria:
14:00, Ondarreta ikastetxea.
• Diploma banaketa:
16:00, Bastero.

BIOTERRA
2018

GONBIDAPENA

Sarreraren prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte doan)

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka

1 · 2 · 3 Ekaina
FICOBA, Irun.

#Bioterra2018

Ficobara zabal itzazu! Busketaren bitartez FICOBA gaituz!

P DOHAINIK

bioterra.ficoba.org

Gonbidapen hau irratia eta azokaren sarreraren aurkeztu

energia berriztagarriak	masuna	fabrikazioaren
idea berriak	luzi ekologikoak	ekologia
teknologia ekologikoa	gintzaren kontsumoa	ekidutza osasuntsua
kosmetika ekologikoa	terapiak naturalak	bioteknia